

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

598

AGINDUA, 2026ko otsailaren 2koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena. Agindu honen bidez, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen abstentzioa deklaratzeko da, eta erabakitzen da Industria Sustatzeko sailburuordeak ordezkatzeko dutela Azpitek programaren eta Elkartek programaren 2026. deialdia ebazteko.

Abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, lehenengo xedapen gehigarrian – ordezkapenen araubideari buruzkoan– ezartzen du dekretu horretan aipatzen diren organoetako titularren lanpostuak hutsik daudenean, titularrak kanpoan daudenean edo gaixorik daudenean, bai eta abstentzioa edo errekusazioa deklaratu den kasuetan ere, honako arauari jarraikiz egingo direla ordezkapenak, sailburuak berariazko ebazpenik eman ezean:

a) Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen ordezkoa Industria Sustatzeko sailburuordea izango da, eta alderantziz.

2026ko urtarrilaren 27an, Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak jakinarazi du abstenitu egingo dela Azpitek programaren eta Elkartek programaren 2026ko deialdia ebazteko zereginetatik, interes-gatazkak daudelako eta hala egin behar duelako legez, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10. artikulua aplikatuta.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea abstenitu egin dela deklaratzeko, eta Industria Sustatzeko sailburuordeak ordezkatzeko erabakitzea, Azpitek programaren eta Elkartek programaren 2026ko deialdiak ebazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 2a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.